

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## Euskaltzaindiak "etxe sartzea" Bilbon

Euskaltzaindiak badu behin betiko etxea, Bilboko Plaza Berrian. 55 urte beranduago, Jose Antonio Ardanza lehendakariak bete egin zuen Jose Antonio Agirre lehen lehendakariak Azkue euskaltzainburuari agindutakoa. Juan Cruz Alli nafar presidentea hantxe egon zen, beste probintzietako agintariekin batera. Baita, PSOE ezik, gainerako indar politikoen ordezkariak ere.

Urriaren 21ean ireki zen egoitza honek 2.500 m. koadro ditu, lau solairutan banatuta. Bertan Azkue biblioteka, bilera-gelak, erakusketa-aretoa, mikrofilme-zerbitzua, bulegoak, eta gainerako zerbitzuak daude. Birmoldaketa-gastuak eta jazkuntza 425 milioioak izan dira. Horietatik 300 Bizkaiko Foru Aldundiarenak.

Louis Lucien Bonaparte printze eta euskalariaren heriotzaren 100. urteurrenarekin batera, Euskaltzaindiak beste bi ekintza antolatu zituen euskal dialektologiaren aitatzat hartu den Bonaparteren ohorez. Alde batetik, LLBren euskal argitalpen guztiak kaleratu. Bestetik, mundu guztiko espezialistak bildu zituen Dialektologi Biltzarra antolatu.

Bonaparteren obra aztertzeaz gainera, munduan zehar emandako esperientzien berri eman zen Biltzarrean, teknologiak ikerlarien eskuetan jarritako aukera berriak barne. Entzundakoak eta ikusitakoak ikaragarri baliagarriak izango bide dira Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa egiteko orduan.



## Euskal prentsa lokalak 100.000 irakurle

Arrasaten Prentsa Lokalari buruzko 1. Ihardunaldiak egin berri dira. Lehen aldiz, euskaraz ateratzen den prentsa lokala zenbatu ahal izan da. Aldizkari guztiak asterokoak bihurtuz, 24.000 ale zabalduko lituzke herri-prentsak Euskal Herrian zehar. Aldizkari bakoitzak 4,5 irakurle dituela kontuan hartuz gero, hori da Kataluniako Prentsa Lokalaren Elkarateak aplikatzen duena, euskaraz egiten den herri-prentsak 100.000 irakurletik gora dituela ateratzen da. Euskaraz inoiz lortu ez den irakurleko kopurua.

Fenomeno hau azken hiru urteetan eman da batipat. *Arrasate Press* sortu zenetik, laukoiztu egin da euskaraz ateratzen den herrietako prentsa.

# Euskararen Aholku-Batzordeko bateragilea

51 urte joan dira Mikel Ugalde Errenterian, Koldo Mitxelena herrian, jaio zenetik. Gazte gaztetatik pertsonaz eta gizarteaz kezkatzen hasi zen. Ardura nagusi horien barruan, euskara eta gizartearen dimentsio soziala landu ditu bere bizitzan zehar. Eremu desberdinetan egin izan du lan Mikel Ugaldek: euskalgintzan, sindikalgintzan, kazetaritzan eta irakaskuntzan.

Francoren garaian JOCen (Juventudes Obreras Cristianas) sartu zen.

Seminarioan urte batzuk eman eta gero, *Zeruko Argia* euskal aldizkarian ibili zen lanean. Transizio garaian euskal sindikalismoaren apustua egin zuen eta ELAn sartu zen. Eibarko Kongresuko lehendakari izan zen. Kazetaritzan, *Zeruko Argiako* esperientziaz gain, Mikelek *Egin*



Mikel Ugalde

egunkariko lehen aldian hartu zuen parte, Mariano Ferrer, Andu Lertxundi, Genoveva Gastaminza eta guzti haiekin.

Irakaskuntzan ere ibilia da. Santo Tomas Lizeoan bi urte, Irungo Ikastolako zuzendaritzan beste hiru eta Azpeitiko Institutuan, non oraindik ere plaza duen.

Gaur egun Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku-Batzordea koordinatzen du. "Ez da organo erabakitzailea, baina erabaki ahal duenari aholkuak ematen


dizkio". Euskarak Irakaskuntzan, lan-munduan, administrazioan eta edonon bizi duen egoera eta dituen beharrak ditu aztergai. Euskararen inguruko hausnarketarako plaza ere izan nahi du EABk. Besteak beste, horretarako antolatu zituen, arrakasta handiz, azaroaren lehen hamabostaldian Udala Ihardunaldiak.

## Udalak eta euskara

◆ Azaroaren lehen hamabostaldian Euskal Autonomi Elkartean "Udalak eta euskararen normalkuntza" hitzaldi-sorta eratu zen. Antolatzaileak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Euskararen Aholku-Batzordea, HABE, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, hiru Foru Aldundiak eta Euskal Udalen Elkartea.

◆ Araban 50 udaletako alkate eta zinegotziek hartu zuten parte, Gasteizen egindako bileretan. Bizkaian, aldiz, 108 udalek hartu zuten parte, Bilbon, Gernikan eta Durangoko bileretan. Gipuzkoan, 88 udalek, Donostian, Zumaian, Bergaran eta Ordizian.

◆ Saioak bi egunetan banatu ziren. Lehenean, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren berri emateko. Bigarrenetan, berriz, alkateek eta zinegotziek eman zuten euren esperientzien berri.



## Euskara berreskuratzen ari da

Euskal Autonomi Elkarteko bizilagunok ez dugu euskara modu berean ezagutzen. Adinak ere badu zerikusirik horretan. Alboko irudiak erakusten duenez, 1986ko erroldatik ateratako datuetatik, argi ikus daiteke, jendearen adinaren arabera, euskara sufritzen ari zen gainbehera gelditzea lortu dela.

Eskuinetik ezkererantz begiratzen hasiz gero, erdaldunen kopuruak gorantz eginez batera, euskaldunena beherantza zihoala ikusten da. Harik eta orain 25 urte ikastolak sortu ziren arte. Harrezkerotik adinak behera egiten duen neurrian, euskaldunen ehunekoak gora egiten du eta erdaldunenak behera.


# Lan-munduan euskara bultzatzeko hitzarmena

Irailaren 19an euskararen normalizazioa lan-mundura zabaltzeko hitzarmena sinatu zen Herri-Administrazioa eta Elhuyar kultur elkartearen artean. Eusko Jaurlaritzaren partetik Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak sinatu zuten, Euskadiko Autonomi Elkarteko Foru Aldundietako Nekazaritza Sailekin batera.

Hitzarmenaren helburua euskararen normalizazioa lan-mundura hedatzea da. Horretarako ekonomi sektore desberdinetan mikroplangintzak proposatu eta aurrera eramango dira.

Lehen sektorean, esnegintzaren arloan euskararen erabilera bultzatzeko proiektu pilotoa izango da abiapuntu. Industrian, berriz, enpresa jakinetan euskararen normalizaziorako bideragarritasun-

ikerketak eta programak prestatu, martxan jarri eta ebaluatuko dira. Hirugarren sektoreari dagokionez, zerbitzuei alegia, gaur egungo egoeraren azterketa eta deskribapenetik hasiko da. Burutu diren ekintzen bilketa eta gerorako jokabideetarako lehenasunen-



proposamenak egingo dira. Azken lan hau egiteko 10.000 biztanletik gorako udalerriak aukeratu dira.

Hitzarmen honek bost urteko iraupena izango

du. Hasteko 11.626.300 pezetako aurrekontuarekin. Jaurlaritzako izenpetzaile bakoitzak %21,6a jarriko du eta Foru Aldundi bakoitzak %11,6a. Elhuyar elkarteak bi profesional eta bere egitura jarriko ditu lan honetan.

Bost urte hauen amaieran Hitzarmena luza liteke, alde biak, administrazioa eta Elhuyar, ados egonez gero.


**ILIANA ALMEIDA, 52,** ekuadortarrak, hiru hilabete eman ditu Euskal Herrian, euskararen egoera eta hemen aplikatzen den hizkuntz politika aztertzen. Moskuko unibertsitatean ikasia, Quitokoan irakasten du.

**IÑAKI EIZMENDI "BASARRI", 78,** kazetari, bertsolari eta idazle zarautztarrak aurtengo Euskal Letren Merezimenduzko Saria irabazi du. Hainbat urtetan txapeldun bertsolarien artean, Eguna, La Voz de España eta DVn idatzi izan du. Hainbat libururen egile.

**PELLO SALABURU, 40,** arizkundarra, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara-Errektoreorde berria da. Deustuko Unibertsitatean Soziologian eta Euskal Filologian lizentziatua, Bostongo MITen ikasi eta gero, doktoradutza atera zuen EHUN, non hizkuntzalaritza-irakaslea den. 1985etik, euskaltzain oso.

## Bidegileak

Hona hemen HPINek *Bidegileak* bilduman atera duen hirugarren sorta. Euskararen munduan bereziki nabarmendu diren pertsonak azaldu ohi dira. Ale honetan, Manuel Larramendi, Juan Antonio Mogel eta Joan Antonio Zamakola, Mikel Zaraterekin batera agertzen dira, mende honetako idazle bizkaitarrekin, alegia.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Wellingtono Dukea, 2 01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)**

Euskaraz  Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Probintzia:.....

Tfnoa:.....

## Galdezka.....

### Elkar hartuta

**G**• Posible ikusten duzu euskararen inguruan elkar-ulertze zabala egitea?

**E**• Euskara ikasteko eta euskaraz hitz egiteko borondateak lotura estu-estua du Euskal Herriaz dugun irudiarekin. Gure herriaz harro bagaude, harro izango gara euskaraz. Etorkizuna ez dago inon idatzita, denon artean egin behar dugu. Etorkizunean baino ez du aurkitzen bere esanahia iraganak. Gure seme-alabei utziko diegunak erakusten du igarotako bizitzaren balioa.

Gure nahia hobetoxeago eta bakeain bizi izatea eta gure herria errespetu eta elkar bizitzaren eredu izatea da. Horrexegatik, eritzi ezberdinak izan baditzaiegu ere, helburu hori lortzeko modua zein den erabakitzerakoan, jakin badakit bat etorriko garela azken helburua zehazteko orduan. Horretantxe dut itzaropena.

**M. Karmen Garmendia.**  
Hizkuntza Politikarako  
Idazkari Nagusia

## Hizkuntz batasuna

Hizkuntz batasuna 1990eko maiatzean, Donostian egin ziren Euskal Kazetarien Jardunaldietan, Ibon Sarasola euskaltzainak "Erdararen eraso euskal kazetagintzan" gaiaz hitz egin zuen. Hona hemen hantxe esandako batzuk.

1. Euskaldunon arazoa hau da: erdara biren, eta batez ere erdara baten, eragina, eta eragina baino areago eraso, jasaten dugula.

2. Lexiko berri bat sortu da. Berbarik arrakastatsuenak espainolezko hitzak dira, euskal ikutuez makilatuak. Asanblada, ez asanblea; grapagailu, ez grapadora; planteiatu, ez planteatu, etab. Argi dago garbizaleak garela, baina espainolaren erasoari aurre egin gabe.

3. Euskal kazetagintzaren alorrean, bizia gaztelania da: *makina txanponjaleak, eskenatoki, merkatal muntaia*, etab. gaztelaniaren calco hutsak dira.

4. Hegoaldean sortu dugun hiztegi berri honek ez du euskaldun guztientzat balio, ez du Iparraldean funtzionatzen. Beraz, edo hitzak eratzeko sistema aldatzen da Hegoaldean, edo euskaldunen hizkuntz eta kultur batasunari uko egiten diogula aitortu behar dugu.

5. Espainolaren eraso hau neurri handi batean gainditzeko bideak baditugu, baldin eta gaztelaniaren soluzioekiko agertzen dugun lilura baztertu eta Europako beste hizkuntzek aurkitu dituzten aterabideak aztertzen eta gure beharretara egokitzen baditugu.

Lan hori aurrera eramateko, Euskaltzaindiaren gidaritzapean eta herri-erakundeen eskuhartzeaz soilik bidera daitekeen hizkuntz plangintza sentitzen du faltan.

Ibon Sarasolaren hitzaldi hau "Euskal Kazetarien Jardunaldiak" izeneko liburuan argitaratu du HPINek "Agiriak" bildumaren barruan.

## ✓ Kontutan hartzeko

### • Euskara Bultzatzeko Hitzarmena Arrasaten.

Abenduaren 18an, Arrasateko beste hogeita bat elkartek Euskara Bultzatzeko Hitzarmena sinatuko dute. Dagoeneko, 3. aldia da Hitzarmen hau sinatzen dela. Denetara, 75 elkartek sinatu dute.

### • Euskal Hitz Gordexolan.

Abenduaren 30etik urtarrilaren 6ra arte. Hauxe izango da azken aldia Euskal Hitz erakusketa ibiltaria erakutsiko dena. Lehenengoz

Donostian II. Euskal Mundu Biltzarrean ireki zenetik, 1987an, Euskal Herri osoko 76 herritan erakutsi da.

### • Gabonetako Haur Parkean euskaraz.

Gabonetan zehar Bilboko erakustazokan irekiko den umeentzako parkean Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak estand bat izango du Eusko Jaurlaritzaren pabilioaren barruan. Bertan umeek euskaraz jolas egiteko aukera izango dute. Sari ugari egongo da.

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



**GOBIERNO VASCO**

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA